


EAEn, 15 eta 29 urte bitarteko 70 lagun daude 64 urtetik gorako 100 pertsonako

EAEko gazteria-indizea % 13,7koa izan da 2013an

EAEn egitura demografikoari buruzko datuak eskainiko ditu jarraian [Gazteen Euskal Behatokia](#). Biztanleria osoan gazteek hartzen duten proportzioa jaitsiz doa arian-arian. Datuok [Estatistika Institutu Nazionalaren Errolda Jarraian](#) oinarrituta daude (**INE**).

Datu horien arabera, 15 eta 29 urte bitarteko 300 994 lagun zeuden 2013ko urtarrilaren 1ean. Horrek esan nahi du gazteria-indizea (15 eta 29 urte bitarteko lagunek biztanleria osoan hartzen duten ehunekoa, alegia) % 13,7 dela.

EAEko gazteria-indizeak behera egin du tinko 2001etik hona, eta orduko % 21,6tik egungo % 13,7ra igaro da.




Gazteria-indizearen beherakada bai gizonengan, bai emakumeengan gertatu da. 2012an, gizonen gazteria-indizea % 14,4 izan zen eta, emakumeen artean, % 13,1.

Ez dago alde esanguratsurik lurralde historikoei dagokienez, nahiz eta Araba izan 2013an gazteria-indizerik altuena izan zuen lurralde historikoa (% 14,2). Gipuzkoakoa % 13,8 izan zen eta Bizkaikoa % 13,6.

EAEko 64 urtetik gorako indizeak, aldiz, kontrako joera izan du. 2013ko urtarrilaren 1ean, 64 urtetik gorako 443 250 lagun zeuden EAEn, hau da, biztanleen % 20,2.

15 eta 29 urte bitarteko pertsona-kopurua eta 64 urtetik gorakoena lotuta, zera konproba daiteke: 2001ean proportzioa gazteen aldekoa zela; egun, ordea, 64 urtetik gorako aldekoa. 2001ean, 122,4 gazte zeuden 100 adinekoko; 2013an, baina, 67,9 lagun daude 15 eta 29 urteko adin-tartean, 64 urtetik gorako 100 pertsonako.



Datu hauek eskuragarri daude Gazteen Euskal Behatokiaren [Adierazleen Sistemari](#), "Biztanleria eta familia" atalean.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

